Bestelako Xedapenak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

1823

EBAZPENA, 2010eko martxoaren 1ekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariarena, Asfaltos Naturales de Campezo SA erakundeari emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetza erakunde izateko emandako aitorpena baltzu-izen berrira egokitzeko dena.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren 2008ko uztailaren 30eko Ebazpenaren bidez, aukera-berdintasunerako lankidetza erakunde izateko aitorpena eman zitzaion Asfaltos Naturales de Campezo SA erakundeari (irailaren 17ko EHAA, 177. zenbakia).

Geroago erakundearen baltzu-izena aldatu da eta izen berria «Campezo Construcción SA» da.

Ondorioz, aurkeztutako eskabidea eta aldaketa egiaztatzeko aurkeztu diren agiriak ikusita, hau

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– 2008ko uztailaren 30eko Ebazpenaren bidez Asfaltos Naturales de Campezo SA erakundeari emandako aitorpena –emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako lankidetza erakunde izatekoa– egokitzea, alegia: aitorpen hori Campezo Construcción SAri emandakotzat ulertu behar da, ondorio guztietarako.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Ebazpen honek amaitu egiten du administrazio-bidea. Ebazpenaren aurka interesatuek berraztertzeko errekurtsoa aurkez diezaiokete Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariari, hilabeteko epean, ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete zuzenean, dagokion Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, hil biko epean, ebazpena EHAAn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Bigarrena.– Ebazpen honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean emango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2010eko martxoaren 1a.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.

Otras Disposiciones

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

1823

RESOLUCIÓN de 1 de marzo de 2010, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, por la que se adecua el reconocimiento de entidad colaboradora en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres otorgado a favor de la entidad Asfaltos Naturales de Campezo, S.A., al cambio de su denominación social.

Mediante Resolución de 30 de julio de 2008, de la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer, se otorgó el reconocimiento de entidad colaboradora en igualdad de oportunidades entre mujeres y hombres a la entidad Asfaltos Naturales de Campezo, S.A. (BOPV n.º 177, de 17 de septiembre).

Posteriormente se ha procedido a modificar su denominación social y ha pasado a denominarse «Campezo Construcción, S.A.»

En su virtud, a la vista de la solicitud presentada y de los documentos acreditativos del cambio aportados,

RESUELVO:

Artículo único.– Adecuar el reconocimiento como Entidad Colaboradora en Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres otorgado a la entidad Asfaltos Naturales de Campezo, S.A., mediante Resolución de 30 de julio de 2008, en el sentido de que aquél se entienda realizado a todos los efectos a favor de Campezo Construcción, S.A.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La presente Resolución pone fin a la vía administrativa y contra ella podrá interponerse recurso potestativo de reposición ante la Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer en el plazo de un mes a partir del día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco en el plazo de dos meses a partir del día siguiente a su publicación en el mismo Boletín.

Segunda.– La presente Resolución surtirá efectos el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 1 de marzo de 2010.

La Directora de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer,
MARÍA SILVESTRE CABRERA.